

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maria Larrañaga Orbea

*Antzuola,
Gipuzkoa
(1921-2017)*

Aurkibidea



Biografia



Ugarriagazpikoa baserrian jaio zen, bost ahizpatatik hirugarrena. Aita bertakoa zen, eta ama, berriz, Elorriotik etorritakoa. Auzoko eskolan ikasi zuen seitik hamar urtera arte. Maisua sakristau eta ile-apaintzailea ere bazen, eta emazte sukaldariarekin batera taberna-jatetxea kudeatzen zuten auzoan. Mariak ezkondu aurretik josten ikasi zuen Bergaran. Gaspar jatetxean ere aritu zen, janariak prestatzen ikasten. Elosuko Amezeta baserriko Gregorio Muruamendiarazerekin ezkondu zen, eta bost seme-alaba izan zituzten. Ezkontza ospakizunerako txahala hil zutelako, garaiko legearen aurka, Guardia Zibilaren bisita izan zuten. 1946. urtean etxea erre zitzaient, katu batek ogia egosteko labea sartu, eta su hartuta ganbarara ihes egin zuenean. Mariaren semea Joxe Mari ere egon zen elkarriketan.

Zintak

ANT-082

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-09-09
- **Iraupena:** 57 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

ANT-083

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-09-09
- **Iraupena:** 26 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Lapurretak eta dirua entregatu beharra

- **Erref:** ANT-082/002
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:06:39. **Bukatu:** 00:08:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra denborako oroitzapenak. Antzuolan frontea egon zen denboran, erreketee abereak (ardiak, oiloak...) lapurtu zizkien. Erreketeen aginduz Mariaren aitak dirua entregatu behar izan zuen udaletxean, eta diru gabe geratu ziren. Auzokoren batek salatu zuela zion Mariaren aitak: izan ere, koinatua abertzalea zen, eta hari eman zion botua.

2. Kanoikadak Bergarako ehun-lantegira

- **Erref:** ANT-082/004
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:08:56. **Bukatu:** 00:10:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra denborako kontuak. Milizianoek zazpi hilabete egin zituzten Elgetan. Elgetatik kanoikadak botatzen zituzten Bergarako San Antonio auzoko ehun-lantegira. Lantegi horretan soldaduentzako arropa egiten zuten. Kanpazar eta Angiozar aldean jende asko hil zen. Tiro hotsak, kanoikadak... gogoratzen ditu Mariak.

3. Aita munizioa garraiatzen

- **Erref:** ANT-082/005
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:10:14. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra denborako kontuak. Mariaren aita gurdia idi-pareari lotu eta soldaduentzako munizioa garraiatzen ibiltzen zen agintzen ziotenean. Behinola, Bergara aldean munizioa utzi eta idiekin goitik behera zetorrela kanoikada bat bota zuten San Antoniora. Idi-parea, beldurtuta, korrika hasi eta etxean agertu zen gurdi eta guzti.

4. Plazara, tratura

- **Erref:** ANT-082/007
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:12:46. **Bukatu:** 00:13:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Mariaren ama tratura joaten zenplazara zapatuetan. Gaztak, bildotsak, ortuko jeneroa... saldu ohi zituen. Ateratako diruarekin azukrea, olio, arropa... erosten zuen etxera.

5. Uzarraga

- **Erref:** ANT-082/009
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:14:14. **Bukatu:** 00:15:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Uzarragako auzo-eskolan ikasi zuen. Eskola eliza ondoan zegoen. Maisua sakristau eta barberua ere bazen, eta emazte sukaldariarekin batera taberna-jatetxea kudeatzen zuten auzoan.

6. Uzarragako maisua, sakristau eta barberua

- **Erref:** ANT-082/011
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:17:05. **Bukatu:** 00:19:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Uzarragako maisua sakristaua eta barberua ere bazen. Gainera, emazte sukaldariarekin batera taberna-jatetxea kudeatzen zuten auzoan. Eskolako kontuak. Maisuak pianoa jotzen zuen, eta umeak kantuan aritzen ziren.

7. "Aramaiteko" kanpaiak jotzean, etxera

- **Erref:** ANT-082/012
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:19:22. **Bukatu:** 00:21:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Gerra aurretik, Uzarragako erromeriak nolakoak izaten ziren azaltzen du. "Aramaiteko" kanpaiak jotzean, etxera joan behar izaten zuten. Auzoko batek jotzen zuen filarmonika. Abadea leihotik zelatatzen egoten omen zen. Ez zuten mutilekin dantzarik egiten. Neskak ez ziren tabernara sartzen, "guk txikitorik ere ez genuen ibiltzen poltsikoan" dio Mariak.

8. Mezak eta ohiturak

- **Erref:** ANT-082/013
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:21:29. **Bukatu:** 00:22:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Igandetan bi meza egoten ziren Uzarragan: 07:00etan eta 10:00etan. Lehenengora gazteak joaten ziren, eta 10:00etakora, berriz, nagusiak. Elizako ohitura bat aipatzen du: bikote batek ezkondu behar zuela iragartzen zuen urtean, mutilak igandero joan behar izaten zuen meza nagusira, eta elizarako dirua bildu behar zuen; "bandeja pasatu behar elizan" dio Mariak.

9. 15 hilabete nobiotan

- **Erref:** ANT-082/014
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:22:59. **Bukatu:** 00:24:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Bere senarra izango zena Elosuan ezagutu zuen, Asentzio Egun batean. Etxean neskak besterik ez zituela eta, gizon bat nahi zuen etxean Mariaren aitak. 15 hilabete nobiotan egin, eta ezkondu egin ziren.

10. Ezkontza

- **Erref:** ANT-082/015
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:24:11. **Bukatu:** 00:26:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Maria eta senarra Uzarragan ezkondu ziren auzoko beste bikote batekin batera. Ezkontza egunean Mariaren jaiotetxean egin zuten bantekea, eta, handik astebetera, auzoko bikotearen baserrian beste banketea egin zuten. Menua: txahala eta legatza. Bi eguneko boda izan zen: ezkondu eta hurrengo

egunean Bilbora joan ziren ezkonberriak, baina etxean jende mordoa izan omen zen bazkaritan. Gonbidatuak, sukaldaria... aipatzen ditu.

11. Ezkontza egunean Guardi Zibilaren bisita

- **Erref:** ANT-082/016
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:26:08. **Bukatu:** 00:28:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Lanbideak » Polizia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Garai batean, ezkontzara (elizkizunera) gazte jendea bakarrik joaten omen zen. Maria eta senargaia Uzarragako elizan ezkontzen ari ziren bitartean, Mariaren etxean Guardia Zibil bikote baten bisita izan zuten. Etxekoak eta sukaldaria banketea prestatzen ari ziren. Sasoi hartan, ez zen libre txahala hiltzea... Etxekoek hamarretakoa eman zien guardia zibilei, eta isunik jarri gabe joan omen ziren.

12. Ezkontzako aitajaun eta amandreak

- **Erref:** ANT-082/017
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:28:31. **Bukatu:** 00:29:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Garai batean, ezkontzara (elizkizunera) gazte jendea bakarrik joaten zen. Maria eta senargaia Uzarragako elizan ezkontzen ari ziren bitartean, bere aita etxean omen zegoen. Bere ezkontzako aitajaun eta amandreak zein izan ziren aipatzen du.

13. Abadearen deskuidua

- **Erref:** ANT-082/018
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:29:38. **Bukatu:** 00:30:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ezkontzako pasadizoa. Abadeak, deskuiduan, ia aitajaunarekin ezkondu omen zuen Maria.

14. Ezkon-bidaian, Bilbora

- **Erref:** ANT-082/020
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:31:01. **Bukatu:** 00:33:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Ezkontzako bantekearen ondoren joan ziren ezkon-bidaira. Maletak hartu eta oinez jaitsi ziren Bergarako tren-geltokira. Han hartu zuten Bilbora joateko tren. Mariaren senarrak ondo ezagutzen zuen Bilbo, bertan egon baitzen soldadu denboran. Auzoko beste bikote batekin batera ospatu zuten bai ezkontza baita ezkon-bidaia ere. Gerraostea izanik, astean egun batean ogi gabeko eguna izaten omen zen. Mariaren ahizpa batek etxean egindako ogia jarri zien maletan Bilbora eramateko. Ogi gabeko eguna iritsi zenean, ogia maletatik atera eta hoteleko jendearekin elkarbanatu zuten.

15. Eguenean ezkondu eta domekan etxera

- **Erref:** ANT-082/021
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:33:42. **Bukatu:** 00:35:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Lau eguneko ezkon-bidaia egin zuten. Ohitura: ezkonberriek meza nagusira joan behar izaten zuten ezkondu eta hurrengo igandean. Bilbotik bueltatu eta zuzenean joan ziren meza entzutera. Ondoren, beraiekin batera ezkondu zen bikotearen baserrian egin zuten banketea. Eguenean ezkondu eta domekan etxeratu ziren. Mariaren senarrak Bilbo ondo ezagutzen zuen, eta hari esker gauza asko ikusteko aukera izan zuten.

16. Senarra Labe Garaietan hasi

- **Erref:** ANT-082/022
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:35:54. **Bukatu:** 00:37:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ezkondu eta senarra baserrian geratu zen, lanean. Bost seme-alaba eduki eta gerora hasi omen zen Bergarako Labe Garaietan lanean, 40 urte inguru zituela. 62 urterekin hartu zuen erretiroa.

17. Aitak beste gizon bat nahi etxean

- **Erref:** ANT-082/025
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:40:32. **Bukatu:** 00:41:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserríari lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Maria gaztea zela, aita eta bost ahizpa bizi ziren baserrian. Aitak beti edukitzen zuen mutil gazteren bat baserriko lanetan laguntzeko. Mariaren aitak beste gizon bat nahi zuen baserrian, eta, gauzak horrela, senargaia bilatu zuenean ezkontza aurreratu egin zuten aitagatik. Baserrian lan asko egin behar izan du umetatik.

18. Baserriko bizimodua

- **Erref:** ANT-082/026
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:41:13. **Bukatu:** 00:42:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratztea eta soroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserriko tresnak: aitzurra, mazoa, goldea... Itulan egin behar izaten zuen Mariak. Baserrian lan asko zegoen garaian ez zen eskolara joaten. Garia, artoa, erremolatxa, arbia, patata... ereiten zuten sorotan. Ganaduari jateko belar iharra eta lastoa ematen zien.

19. Gari-jotzea

- **Erref:** ANT-082/027
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:42:41. **Bukatu:** 00:44:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Auzoko sei-zazpi lagunak artean matxakea zeukaten. Gerra denboran, sasoiko jendea falta zen etxeetan, eta jende nagusia ibiltzen zen garia sartzen matxakean. Maria ibilita dago lan hori egiten. Igitaiarekin moztzen zuten garia.

20. Auzolana

- **Erref:** ANT-082/028
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:44:34. **Bukatu:** 00:45:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Lan asko zegoenean, auzokoen artean auzolanean aritzen ziren. Elosuko senitartekoekin ere egiten zuten auzolana, eta batak besteri laguntzen zien. Denborarekin, ordea, utzi egin zioten "lanean baino gehiago nekatzen ginen bidean joan eta etorria egiten" dio Mariak. Gari denboran, igandetan ere lana egin behar izaten zen.

21. Urte sasoiaren arabera lanak

- **Erref:** ANT-082/029
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:45:24. **Bukatu:** 00:46:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserrria » Baserriko lanak » Garia
- Baserrria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

Garia ebaki ondoren, abuztuaren azken aldera, arbia sartzen zuten soroan. Arbia negurako izaten zen. Erremolatxa ere ereiten zuten, txerriei jaten emateko. Arbia bildu ondoren, artoa ereiten zuten.

22. Errazionamendua eta tabakoa

- **Erref:** ANT-082/031
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:46:22. **Bukatu:** 00:47:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Hileko errazionamenduko jeneroa: azukrea, olio, tabakoa... Astoarekin joaten ziren herrira errazionamendua jasotzera. Mariaren aita oso erretzailea zen, eta errazionamenduan ematen zioten tabakoa ez omen zen nahikoa izaten harentzat. Hori dela eta, etxean tabako landareak sartzen hasi zen. Erre aurretik tabakoa nola lehortzen eta txikitzen zuen azaltzen du.

23. Kaletarrak, baba eske

- **Erref:** ANT-082/034
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:49:45. **Bukatu:** 00:51:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean, kaleko jendea baba eskean joan izan zitzairen baserrira iluntze partean. Beraiek ezin izaten zuten baserritik babarik eraman kalera (debekatuta zuten): kalera esnea eramatera joaten zirenean, astoa erregistratu egiten zien. Ez ziren estraperloan ibiltzen. Etxekoarekin moldatu ziren.

24. Txahalak, Bergarako hiltegira

- **Erref:** ANT-082/035
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:51:24. **Bukatu:** 00:52:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Abere salmenta. Tratantea harakina izaten zen, eta bera joaten zen baserrira aberea erostera. Tratanteak abisua emandakoan, etxeko bi lagunak artean oinez eramaten zuten txahala Bergarako hiltegira.

25. Baserría erre

- **Erref:** ANT-082/036
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:52:30. **Bukatu:** 00:56:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

1946. urtean etxea erre zitzairen, katu batek ogia egosteko labea sartu, eta su hartuta ganbarara ihes egin zuenean. Momentu horretan Maria ez zegoen etxean, herrira joana zen esnea saltzera. Auzokoen laguntza izan zuten sutea itzaltzeko. Aseguru kontuak eta auzokoen laguntza aipatzen ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com